



**Basaburuko Udala**  
CIF P 3104900 J  
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

## **2023KO ABENDUAREN 21EAN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA**

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2023ko Abenduaren 21ean, arratsaldeko 19:00etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Santos Etxegia Oronoz alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

**BERTARATUAK:** Julen Beunza, Micaela Elizalde, Iker Isiegas eta Alaia Etayo.

**BERTARATU EZ DIRENAK:** M<sup>a</sup> Mar Ansorena eta Javier Auza.

19:00etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

### **GAI ZERRENDA**

#### **1.- Aurreko aktaren onespena.**

Azaroaren 29ko ohiko batzarraren akta onartu dute bildutakoek, batzarre deialdiarekin batera bidali dena

#### **2.- Alkate ebazpenak**

2023/129 alkate ebazpena obra baimena emanaz Udabeko 2. Poligonoko 104. Lursailean dagoen eraikina etxebizitza bezala eraberritzea, obraren aurrekontua: 98.315,79 eurokoa da.

2023/130 alkate ebazpena Aizarotzko Errekaondo 6 behea A etxebizitzaren jardinean hormigoizko zoladura eta zeramikazko instalazioko obra egiteko 5.197 euroko aurrekontuarekin.

2023/131 alkate ebazpena PERTE programaren dirulaguntza eskaera onartu, aurkeztu beharreko memoria ere eta bertan sartutako obrak egiteko aurrekontua 289.445,16 eurokoa.

2023/132 alkate ebazpena baimena emanaz Roberto Martín Fernandezi, Jaunsaratsen dagoen udal polikiroldegia erabiltzeko, abenduaren 6an arratsaldeko 16:30etatik aurrera.

2023/133 alkate ebazpena onartuz 4106 MGS matrikuladun autoaren zirkulazio zergan %50eko hobaria, ibilgailu elektrikoa izanik

2023/134 alkate ebazpena onartuz 7681 LLP matrikuladun autoaren zirkulazio zergan %50eko hobaria, ibilgailu elektrikoa izanik

Bildutakoek ontzat ematen dituzte egindako alkate ebazpenak.

### **3.-Aizarotz kontzejua eratzeko ondasunen eta azpiegituren zehaztapena.**

El alcalde explica que mediante resolución 361/2023, de 16 de octubre, del Director General de Administración Local y Despoblación, se sometió a información pública el expediente de constitución del Concejo de Aizarotz,

Dicho plazo finalizó y se convocó a una reunión al ayuntamiento para determinar que se había delimitado territoralmente el concejo a falta de ratificación por parte del ayuntamiento y faltaba la definición del inventario de bienes adscritos al concejo para posteriormente aprobar la constitución del concejo previa resolución del Director General de Administración Local y Despoblación, y publicación en el Boletín Oficial de Navarra.

Los reunidos vista la documentación obrante en el expediente, por unanimidad de los presentes adoptan por mayoría el siguiente acuerdo que se transcribe a continuación: Adscribir como bienes patrimoniales al servicio del Concejo de Aizarotz los siguientes: Edificio kultur etxea que consta de planta baja con espacio de bar- restaurante, planta primera con auditorio. Este edificio está situado en la parcela 51 del polígono 10 de Aizarotz.

Frontón incluido en parcela 52 del polígono 10 de Aizarotz.

Parcelas urbanas incluidas en catastro con nº de parcela 45,46,53,67 y 75 del polígono 10 de Basaburua.

Almacén con casilleros para el uso de los arrendatarios de huertas para la guarda de material y herramientas, se corresponde con la unidad L de la parcela 32 del polígono 10 de Aizarotz

Espacio destinado a huertas con una superficie de m<sup>2</sup>, incluida dentro de la parcela 32 del polígono 10 de Aizarotz.

Así mismo como bienes de servicio público se adscriben el parque infantil, la zona de baño, y la zona de barbacoas situadas en vial público junto a edificio kultur etxea y frontón.

Seguirán con las competencias establecidas en el artículo 39 de la Ley Foral 6/1990 de Administración Local de Navarra, alumbrado público, fiestas, cementerio.... Y como al resto de concejos se les ofrecerá la posibilidad de la asunción de la delegación de competencia de calles con lo que recibirán como aportación parte de lo recaudado en concepto de impuesto de circulación de los vehículos dados de alta en el concejo.

Comunicar este acuerdo a la Dirección General de Administración Local.

#### **4.-2023ko aurreko aldaketak. Hasierako onespina.**

Aurreko ogasun batzordean aztertu zen aurrekontuan aldaketak egiteko beharra eta horren inguruan udal idazkarian ondoren irakurtzen duen txostena egin zuen:

Basaburuko Udalak 2023ko aurrekontua 2023ko uztailaren 27ko batzarrean behin betikoz onartu zuen. Aurrekontuaren behin behineko aurreikuspenak 1.452.231,63 eurokoak izango zirela onartu zen gastuetan eta aldiz 1.456.536,61 euro sarreretan.

Kontutan hartuta urrian arteko gastuak kontabilizatuak daudela kontabilitate programan, onartutako gastuak 896.860,71 eurokoak dira horietatik 881.224 euro ordaindu direlarik. Sarreretan onartutakoak 917257 eurokoak dira eta kobratutakoak 907.775 euro.

Kontuen espedientea osatzen duten txostenak aztertu ondoren eta kontutan hartuta ere badaudela onartu eta egindako inbertsioak kontabilizatu ahal izateko partidak sortu behar direla, hainbat aurrekontu aldaketa tramitatzea eskatzen du 2023ko aurrekontuak.

**-2023/1 aurrekontu aldaketa:** 1.0.3 poltsan dago Interesak, Nafar Kutxako maileguarena partida, bertan onartzen dira udalak egun duen maileguaren interesak, aurreikuspena 500 erokoa izan zen, azkeneko urtetan interesak baxuak zirelako baina aldiz 2023. Urtean igo direnez onartutako gastuak 2.439.88 euro dira eta oraindik ere urteko azken hiru hilabeteko ordainketa egitea gelditzen da, hots 1300 euro inguru.

Hortaz 500 euroko aurreikuspena 3740 euro ingurura igo beharko litzake. Partida hau hornitzeko behar den soberakina, aurrekontua igo gabe, kreditu transferentzia bidezko aurrekontu aldaketa bidez egin ahalko liriteke kontutan hartuta beste poltsetan dagoen soberakina. Aipatutako partida hornitzeko, (3240

euro) ikusita aurrekontuaren exekuzioa eta kontutan hartua 1.1.6 poltsan dagoen Energia Berriztagarrien produkzio sistema jartzeko partida ez dela egikarrituko, bertatik hartu ahalko lirateke beharrezkoa den aurreikuspena. Hortaz 1.0.3 poltsa 3240 euroekin igoko zen eta aldiz 1.1.6 poltsaren behin behineko aurreikuspena 3.240 euroekin murriztuko Energia Berriztagarrien produkzio sistema jartzeko partidatik hartuz. Hortaz 1.0.3 poltsaren behin betiko aurreikuspena 3.740 eurokoa litzateke eta 1.1.3 poltsarena 52.070,71 eurotik 48.831 eurora murriztuko litzateke.

**-2023/2 aurrekontu aldaketa.** 1.3.1 poltsan haur eskolako langileen gastuez osatua dago, kontutan hartua azaroa eta abendua gehi ezohiko ordainsaria daudela kontabilizatzeko, aurreikuspena gaindituko dela ondorioztatzen dute kontuen exekuzioen txostenek.

Behin behineko aurreikuspena 122.000 eurokoa onartu zen, aldiz onartutako gastuak 119.240,17 eurokoak dira.

Kontutan hartuta aipatu bezala hiru nomina daudela kontabilizatzeko, aurrekontu aldaketa egitea eskatzen du poltsak. Beharrezkoa den soberakina 25569,85 euro ingurukoa da. 2023/1 aurrekontu aldaketa bezala tramitatu ahalko lirateke aurrekontu aldaketa hau ere, hots aurrekontua igo gabe, kreditu transferentzia bidezko aurrekontu aldaketa bidez. Kasu honetan ere 1.1.6 poltsan dagoen soberakina erabiliz, kontutan hartuta Energia Berriztagarrien produkzio sistema jartzeko partida ez dela egikarrituko. Hortaz 1.1.6 poltsaren aurreikuspena 25.569 eurotan jaitsiko da eta 23.262 eurotan gelditu.

**-2023/3 aurrekontu aldaketa.** Aurrekontu aldaketa hau 1. 1.7 poltsak eskatzen du. Poltsa horretan dagoen partida bakarra Eraikuntzetarako % 2ko dirulaguntzaren partida da. Partida honetan aurreikuspena 6000 euroko ze baina onartutako gastuak bikoiztu baino gehiago egin dira 13.365,18 euro onartuak agertzen dira partida horretan. Hortaz aurreko aurrekontu aldaketekin egin den bezala kreditu transferentzia bidez aurrekontu aldaketa tramitatu ahalko litzateke eta kontutan hartua 1.1.6 poltsan gerakina dagoela erabiltzeko, bertatik hartu beharrezkoak diren 7400 euroak.

Hots 1.1.7 poltsaren behin betiko aurreikuspena 6000 eurotik 13400 eurotara igoko ziren eta aldiz 1.1.6 poltsaren behin betiko aurreikuspenak jaitsi 15.862 eurotara.

**-2023/4 aurrekontu aldaketa:** Bukatzeko badaude inbertsioetako partida batzuk aurrekontuan partida ez dutenak eta gastuak onartuak daudenez, aurrekontu aldaketa bidez aurrekontuan txertatu behar dira. partida horien artean daude Txokolatero etxea erosteko ordaindutako aurrerakina, eskolako jangelaren kudeatzailea, PERTEko memoria. Udaleko 1 pisurako erositako altzariak eta beste... osotara 74481,09 euroko partidak sortu beharko lirateke.

Kontuen txostenaz aztertuta aurrekoetan bezala kreditu bidezko transferentzia eginez aurrekontua igo gabe onartu ahalko lirateke aurrekontu aldaketa horiek kontutan hartuta inbertsioetako partidari badagoela soberakina, hots 1.4.6

poltsan dagoen industria guneko urbanizazioko obren partida erabiliz, bertan 172.772.58 euro erabilgarriak daudelako.

Kontutan hartu beharko da horretan sartzeko zenbat ordaindu behar zaion Lakitari, oraindik 2 zati ordaintzeko gelditzen dira.138.000 euro ordaindu zaizkio

**Hortaz bildutakoek 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazioako Foru Legearen 285. Artikulua jarraituz hasiera batez onartzen dituzte txostenean aipatutako aurrekontu aldaketak eta erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratua izan dadin agintzen dute, erabaki hau jende arrear egon dadin 15 eguneko epean.**

#### **5.- 2024ko aurrekontua. Hasierako onespena.**

Alkateak azaltzen du ogasun batzordean aztertu direla aurreko batzordean aurkeztutako aurrekontuaren aldaketak. Gastu bezala sartu dira ere industriaguko argi indarraren inbertsioa 100.000 eurokoa eta egonkortze prozesuaren baitan egon ahal diren langileendako indemnizazioak. Jeitsi da industriaguneko azken zertifikazioaren partida, kontutan hartuta jada 2 faktura jaso dituela udalak, azken zertifikazioa BEZ kanpo 81.000 eurokoa izanen litzeke, hortaz aipatutako partidaren auresikuspena 120.000 eurotik 90.000 euroro jeitsi da. Sarreretan ere jeitsi da urbanizazioko lursailen salmentaren partidaren aurreikuspena eta 2 lursail salduko direnaren ekarpenarekin osatu da partida, hots 229567,55 euro.

Aurrekontuaren emaitza ondokoa da:

SARRERAK	1.808.747,55
GASTUAK	1.787.400,00
DIFERENTZIA	16.347,55

Horta bildutakoek aho batez 1990/6 Nafarroako Tokiko Administrazioako Foru Legearen 271. artikulua jarraituz, ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Hasiera batez onartzea 2024ko aurrekontua, behin behineko gastuak 1.787.400 eurokoak izanik eta sarrerak 1.808.747,55 eurokoak.**
- **Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialera bidali goian aipatutako artikulua jarraituz 15 eguneko epean jendeurrean egon dadin aurrekontuan txostena alegazioak aurkezteko epea irekiz.**

#### **6.- 2024ko tasen onespena.**

Alkateak adierazten du ogasun batzordean aztertu direla eta proposamena luzatu diola batzordeak batzarrari onartuak izan daitezen.

Honakoak izanen lirateke 2024.ko tasak:

#### URAREN TASAK:

- Ur kontsumoa 0.30 €/m<sup>3</sup>
- Ur hornidura kuota: 21.96 euro (seihilabeteko)
- Saneamendu kuota: 21.96 euro (seihilabeteko)
- Ur lotura 292.59 euro.

- Hiri kontribuzioa; 0.250

- EIOZ zerga %5ean finkatzen da. Aurreko urteko balorea mantentzen da.

- 1.20 eko erakuslea ezarri JEZ zerga kobratzeko

GAINBALIOA. 2023. Urteko tipoak, egokituko dira 2022/36 Foru Legea kontutan hartuz karga % 25ekoa izanen dela.

AIZAROKO EPAITZAK: PREZIO PUBLIKOA Finkatuko da gastua sortzen denean, eta pisuaren arabera kobratuko.

AIZAROKO BARATZEN ERABILPENA: Hitzarmenean sinatu bezala hasierako 13 euro baratzeke KPI-a igotzen zaie, hots 2023. Urtean 14,88 euro baratza bakoitzekori KPI-a igoko zaio (martxoko KPI-a dagokie).

#### HIRIGINTZA TASAK

- Obra baimenen tramitazioa:

< 5000 aurrekontua: 55,00 €

>5000<15000: 75,00 €

>15000<30000: 150,00 €

<30000<60000: 225,00 €

<60000<150000: 280,00 €

>150000<300000: 375,00 €

<300000<600000: 450,00 €

Eranskina, zuinketa akta eta beste batzuk. 120,00 €

Udal arkitektoak sustatzaileek aurkeztutako dokumentazioaren inguruan egiten duen 4. Txostenetik aurrera txosten bakoitza 100 euro.

- Urbanizatu ezin den lurraeraikitzeko baimena: 120 €			
- Sailkatutako jarduera baimena edo aitortpena arduratsua : 150 €			

4D eranskineko jarduerak: 185 € Ikuskaritza bisitak: 375 €			
- Lehen erabilera baimenak, obra bukaerak: 250 €			
- Irekiera baimena edo aitorten arduratsua: 265 €			
4A, 4B eta 4C eranskinetako jarduera sailkatuak 470 € 4D eranskineko jarduerak: 275 € Ikuskaritza bisitak: 375 €			
Eranskina: 80 €			
- Lursailen zatiketa baimenak: 215 €			
- Ikerketa edo memoriatarako hirigintza kontsultak, xehetasun azterlanak eta reparzelazio proiektuak: 225 €			
- Udal Planaren aldaketa zehatzak: 260 €			
- Hirigintza arauen aldaketa, plan partzialak : 335 €			
- Bestelako informeak, alegazioak: 200 €			

JAUN SARATSKO POLIKIROLDEGIKO ARGIA ERABILTZEKO TASA . Orain harte hauek ziren kobratzen ziren tasak:

- 2 euro/ordua frontoiko argia erabiltzeko.
- 3 euro/ordua kantxako argia erabiltzeko

- 5 euro/ordua polikiroldegi guztiko argia erabiltzeko (frontoia eta kantxa).

#### UDAL ERAIKINETAN DAUDEN GELAK ERABILTZEKO TASA

Iharduera puntualak: Hiru ordu baino gutxiago, 10 euro. Hiru ordu baino gehiago, 20 euro.

#### **Bildutakoek aho batez onartzen dituzte 2024. Urterako tasak.**

##### **7.- Alkatearen jardunaldiaren luzapena.**

Alkateak adierazten du ekainaren 21eko ez ohiko batzarrean onartu zela astean 10 orduko jardunaldia egitea. Hilabeteak pasa ahala jardunaldia txikia dela ohartu da eta proposamena 15 ordura luzatzea dela azaltzen du, horrela izanik astean 2 egunetan egongo litzateke udalean.

Aldaketa hau urtarrilaren 1etik aurrera egitea proposatzen du.

**Bildutakoek ontzat ematen dute proposamena eta aho batez onartzen dute alkatea den Santos Etxegia Oronozen jardunaldiaren aldaketa, astean 10 orduetik 15 ordura aldatuz.**

**Erabaki hau Bidera Aholkularitza enpresari jakinaraztea.**

##### **8.- Mozioak.**

Ez daude.

Gai ordenetik kanpo, aztergai beste gai bat dagoela adierazten du alkateak, Telefonika enpresak egiten ari den lanen inguruan. Bildutakoek onartzen dute aho batez gaia zerrenda sartzea aztertzeko.

Alkateak azaltzen du Telefonika ari dela kablea kentzen fibraren bidez ematen ari delako zerbitzua kableak eta zutoiak botatzen dituzte, bertan utzi bildu gabe. Gainera ere zaborrak utzi dituzte lan egin duten tokietan, obra zaborrak eta beste, hortaz alkatearen proposamena da enpresari udalaren kexa adieraztea eta eskatzea bai kableak biltzea bai utzi duen zaborra. Eta hori egiteko epe bat eman, epe horretan ez baditu burutu eskatutakoa Foruzaingoaren aurrean salaketa jarriko da.

Bildutakoek ados egonik alkatearen proposamenarekin, aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

**Telefonika enpresari eskatu Basaburuan zehar kendu eta bildu gabe utzi dituen kableak biltzea eta lan horiek egiteko sortu dituen zaborrak biltzea ere. Eskatutakoa egiteko 2 hilabeteko epea eman enpresari egin ezean Foruzaingoan salaketa jarriko dela adieraziz.**



## **9. - Batzordeen informazioa.**

### **Euskara Batzordea. Iker Isiegasek ematen du informazioa.**

Ostalarien formakuntza saioak prestatzen ari dira, bilera egingo dute beraiekin egunak eta orduan finkateko, eskainiko zaiena da 2 ordukoa formakuntza 10 egunez.

### **Hezkuntza Batzordea. Alaia Etayok ematen du informazioa.**

Eskola kontseiluaren biera egingo da urtarrilaren hasieran, hurrengo ikasturteko jardunaldiaren inguruan eztabaidatzeko.

Eskola garraioko erabiltzaileei aurreko urtean bezala eguneko 2 euro kobratzea adostu du eta hala adieraziko zaie familiei.

### **Ogasun Batzordea. Micaela Elizalde ematen du informazioa.**

2024ko aurrekontua prestatzen aritu dira batzordean.

### **Etxebizitza Batzordea. Santos Etxegiak ematen du informazioa.**

Udaleko 1. Pisuko etxebizitzaren errenta esleitu da, dokumentazioa aurkezteko epea abenduaren 18an bukatu zen eta bi proposamen aurkeztu ziren.

Balorazio altuena zuenak uko egin dio esleipenari pisua haundia delako eta hortaz bigarren eskatzailea izango da esleipenduna. Ama bakarra da, 2 urteko alaba batekin.

Kontratua urtarrilaren 1etik aurrera egingo zaio.

Basaburuko bideen homologaziorako tramiteak egingo dira udaletik Manu Alvarezek eskatuta.

Ihabengo pasarelen egokitzapen proiektua eta Jaunsaratsko baso sorgindua egiteko proiektuak esleitu ziren eta lanean dago horretan Mediodes enpresa.

Garraio Publikoko Ataleko zuzendari orokorrarekin bilera izango du alkateak urtarrilean, Basaburuko egoera aurkezteko eta erantzun bat emateko eskatzeko.

Berdintasun teknikariak zinegotziei zuzendua formakuntza saio batzuk antolatu ditu, gizarte zerbitzuetan izena eman behar da.

Ericen bildu ziren zonaldeko alkateak eta eskolako ordezkariak eta zaintza itunaren aurkezpena egin zen eta berau sinatu zuten bertaratutakoek.

Itsaso eta Udabe arteko mendi lerroan eolikoak jartzeko proposamena aurkeztu du Savana empresak udalean, bilerak egingo dira bertako alkateekin. Gainera ere proiektuaren eremua hartzen dute beste alkateekin harremanetan dago Basaburuko alkatea.

### **Komunikazio Batzordea. Julen Beunzak ematen du informazioa.**

2024ko aurrekontuan zuzenketak egin dira komunikazio batzordeari eragiten dioten partidetan, Pulunpe eta Esan erranen ekarpenetan.

udal buletina berriro martxan jartzeko aurrekontuak biltzen ari da, 6-10 ale urteko egiteko. 2021ean bertan behera gelditu zen egitasmo hau eta berriro martxan jartzea du helburu batzordeak.

### **10.- Informazio orokorra.**

Ez dago.

### **11. Erreku-galderak**

Ez daude.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez 19:40 direnean bilera amaitutzat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.